

Herriko ermitak laguntza beharrean

Ondare Aseguratua:

- Interes garantiztua.
- %25eko atxekipen fiskalik gabe.
- Inbertsioak irauten duen bitartean ez duzu zergarik ordainduko errenta-aitorpenean.

Ondare Aseguratua Lagun Aro Vida S.A.ren Bizi Asegurua da.

Zatoz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletara edo hotsegizu 901-333-444 telefonora.


Garantizatutako kapitalak.

1.000.000 pta.	3 urtera	1.275.000 pta.	Nominala	%9,16 (UTB %8,43)
3.000.000 pta.	3 urtera	3.850.000 pta.	Nominala	%9,44 (UTB %8,67)
5.000.000 pta.	3 urtera	6.500.000 pta.	Nominala	%10,00 (UTB %9,14)

Lagun Aro Vida S.A.ren
Ondare Aseguratua



LABORAL Taldea
EUSKADIKO KUTXA



AROTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZABALDU BERRIA!!
ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

Altzarien dekorazio eta erakusketa

- *Betiko leihoak gaur egungo teknolojiari egokituta*
- *Ez hotzik, ez zaratarik, ez urik!!*
- *Leiho termoakustikoak*


- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARGALTZEKO...

**KILO horiek KENTZEKO
ERREMEDIO baten BILA zabiltza?**

BIDERIK ONENA...

ZURE PISUA ZAINDUKO DUGU



ZURE OSASUNA ZAINDUKO DUGU

Biologo dietista. Dieta pertsonalizatuak.
HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

BERRIGARA

PROTALDE JAUREGIA
 13010 Bergara
 Postea eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:

ELKARTEA
 13010 Bergara
 Postea eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Redakzioa:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Publizitatea:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Argiditzaileak:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Bostunen zuzenketak:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Redakzio kontseilua:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Lanbideak:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Kontaketa:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Eskatutakoa:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Eskatutakoa:

ELKARTEA
 13010 Bergara

Copyright:

ELKARTEA
 13010 Bergara

ISSN:

ELKARTEA
 13010 Bergara

BERRIGARA ez du bere gain

ELKARTEA
 13010 Bergara



Aldizkari honek Bergarako
 Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko
 Leizoriaritzaren Kultura Sailaren
 laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JOSEBA AIZPURUA


Udaleko Hirigintza Departamentuko teknikaria

- Zehaztuta al dago
 Erramu Zapatuko pro-
 gramazioa?

- Bai, iaizkoaren berdint-
 sua izango da. Apirilaren
 8an, goizean, ganadu era-
 kusketa eta baserriko pro-
 duktu eta tresneriarenak
 egingo dira. Indar gehien
 ganaduari emango zaio
 nahiz eta lehiaketarik egin-
 go ez den. Era berean, Erri-
 oxako ardoaren dastaketa
 izango da, txorimalo lehia-
 keta ere bai eta trikitilari
 eta bertsolarien saioak.
 Arratsaldean, berriz, herri
 kirolak Seminarioan eta ga-
 uean bertso jaialdia Nove-
 dadesen.

- Zein harrera izan
 du feriak azken urtetan?

- Gora egin duela esan-
 gu nuke. Azken 4-5 urte-
 tan postuak jartzeko eska-
 rek gora egin dute eta es-



pazio eta mahai asuntore-
 kin nahiko gaizki gabiltza.
 Bergara bezalako herri ba-
 tendako feria polita da,
 nahiz eta Zumarragakoare-
 kin ezin daitekeen konpa-
 ratu, hark betidanik tradi-
 zio handiagoa izan baitu.
 Eguraldiak ere zeresan
 handia izaten du; balorazi-
 oak, beraz, egunean ber-
 tan egin beharko dira. Iku-
 si behar...

**"Azken urteotan postuak jartzeko eskaerek
 gora egin dute eta lekuz gaizki gabiltza"**

I T U R R I O N E T I K

Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmen berria apirilaren 8an

Datorren apirilaren 8an Udaletxeak eta Jardun
 Elkartek 1991eko abenduan bultzatu zuten Euskara
 hitzarmenaren bigarren sinatze ekitaldi bat izango da
 Udaletxean. Oraingo honetan, lehen hitzarmena sinatu
 zuten 49 taldeei beste 15 talde inguru gehituko
 zaizkie. Gogoratuko duzuen Euskara hitzarmena
 herriko taldeen artean euskararen erabilera
 gehiagotzeko martxan jarri zen. Abenduan 3 urte bete
 ondoren, orain beste 3 urteko plangintzari ekingo zaio
 eta bertan talde berriak izango dira: alderdi politikoak,
 akademiak, gimnasioak
 eta beste zenbait.

E S A N
D U T E

"Mikel Zabalzaren
 erahilketari ezin
 badiot erahilketa
 deitu, Galindo
 Koronela gizarte
 arrazoiaren gainetik
 dagoelako, ba,
 orduan, Gregorio
 Ordoñezenari edo
 beste pertsona
 batenari, hilketa
 deituko diot"

MARTIN GARITANO

Kazetaria
 ELKARRI
 ALDIZKARIA

●
 "Zenbatetan egin
 dugu topo arrazistak
 ez direla,
 prejuiziorik ez dutela
 edota oso
 tolerantetarako
 esaten duten
 pertsonekin?
 Homosexualen,
 lesbianen, beltzen,
 ijitoen edo SIDA
 gaisoen esiztentzia
 onartzen dutelako
 tolerantetarako
 ueste duten, baina
 aldi berean, guzti
 horiekin bizitzeari
 uko egiten dioten
 edota euren alabak
 beltz batekin edo
 SIDA gaiso batekin
 ezkontzea ondo
 ikusiko ez luketen
 pertsonekin?
 Badaude, bestalde,
 pertsona
 "ezberdinen"
 esiztentzia katarro
 txiki bat bailitzan
 onartzen dutenak"

●
 LIERNI IRIZAR
 Seropositiba
 EGIN

**LA PASION TURCA**

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**STARGATE**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30.

**QUEMADO POR EL SOL**

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Vicente Aranda** zuzendariaren (*Amantes, Intruso*) azken filmak ez du espero zen arrakastarik lortu. **Antonio Galaren** nobela ezagunean oinarrituta, *Desideriaren (Ana Belén)* istorioa kontaktzen zaigu. Bere eguneroko bizitzaz asperturik, Turkiara alde egingo du eta han bere bizitza erabat aldatuko dion amodioa aurkituko du. **George Correface Yamanen** paperean.

▼▼ 1920ko Egipton arkeologo talde batek balio haundiko altxor bat aurkituko du. Urtean Pentagonoan gordeko da altxorren enigmak ezagutzen joaten diren arte. **Roland Emmerichen (Soldado universal)** filme honetan 15.000 extra inguruk parte hartu dute. Fikzio historikoa eta abenturak tarteka.

▼▼ **Nikita Mikhalkov** errusiarraren (*Ojos negros, Urga*) filme honek Epaimahaiaren Saria irabazi zuen iazko Canneseko Jaialdian eta *oscarretarako* ere izendatua izan da, filme atzerritar onenaren sailean. Oraingo honetan, **Mikhalkov**ek 1936ko egun berotsu batean kokatzen du iraganeko amodio baten istorioa. **Nadia** bere alaba protagonisten artean.

Deiak

▼ **Erakusketa.** "Udaletxea historian zehar" Udaletxeko Pleno aretoan martxoaren 31ra arte.

▼ **Bideoa.** "Asterix Britanian" bihar 11etan Kultur Etxean.

▼ **Hitzaldia.** "Gurasorik gabe geratzen diren átzeratuen etorkizuna", asteazkenean 6etan Kultur Etxean.

▼ **Hitzaldia.** "Bizitzarekin dugun konpromezua" asteazkenean 7etan Ipintza Institutuan.

▼ **Matinala.** "Pulgarcita" igandean 11.30etan Novedadesen.

▼ **Mendi irteera.** Pol-Polek. apirilaren 13tik 17ra bitartean Zuri-zan kanpaketa bat iragarri du. Argibideak 76 48 51 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 26:** Ogizun.


GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 24:** Estella/Morales.
- ▼ **Larunbata 25:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Igandea 26:** Mozos/Español.
- ▼ **Astelehena 27:** Camacho/Corc.
- ▼ **Asteartea 28:** Puy/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 29:** Guallar/Amez.
- ▼ **Osteguna 30:** Estella/Ruiz.




zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

KOXKA



Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89


- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

I. Pilota topaketak

Udaleko Kirol Zerbitzuak, Bergara Kirol Elkar-teak eta Ikastolen Elkar-teak antolatutako Bergarako I. Pilota Topaketen barruan, herritar guztiei zuzendutako hainbat ekitaldi izango dira datorren astean. Horrela, bihartik apirilaren 2ra bitartean euskal pilotaren erakusketa ibiltaria ikusgai izango da Kultur Etxean. Erakusketa honetan pilotaren ikuspegi orokorra eta zabala eman-go da; bertan ohiturak eta jokatzeko modu ezberdinak aztertu eta, era berean, artisau-lanen espezialitateak eta historian zehar izan diren pilotari ospe-tsuen inguruko informazioa jaso ahal izango da. Erakusketa-ibiltari hau goizez ikastetxei zuzenduta izango da eta arratsaldean, berri-z, herritarrek hurbildu ahal izango dira ohizko ordutegian, arratsaldeko 6etatik 9etara.

Pilota mota ezberdinak nola egiten diren jakiteko pilotagintza tailerra ere izango da ikusgai martxoaren 27, 28, 29 eta 31n, arratsaldeko 7etatik 9etara Kultur Etxean bertan. Larruzko edota oihalezko pilotak zelan egiten diren erakutsiko da eta tailer hauek eskulantetan izan ditzaketen aplikazioak aztertuko dira. Bertara joateko beharrez-

Larunbatean hasi eta astebetean, pilotaren inguruko erakusketak, ikastaroak eta abarrak



Datorren ostiralerako pilota jaialdi erakargarria iragarri da Udal Pelotalekuan.

koa izango da aurretik Udaleko Kirol Zerbitzuan (76 59 57 telefono zenbakia) izena ematea (2.000 pezeta).

Ostegunerako, hilaren 30erako, mahai-inguru bat iragarri da. Arratsaldeko

7etatik aurrera Luziano Juaristi "Atano X", Reyes Azkoitia, Aitor Elkoro eta Asier Mujika "Nola egiten da pilotari bat?" gaiari buruz arituko dira eta Juan Inazio Zulaikak moderatzaile lanak beteko ditu.

Bukatzeko ostiralean gaueko 10etan pilota jaialdi ikusgarria izango da gaueko 10etan Udal Pelotalekuan. Kadeteetan Zabaleta anaiek Redondo eta Martinen kontra jokatu dute; jubeniletan Osa eta Gutiérrez Zabaleta eta Alberdiren aurka arituko dira eta, bukatzeko, Jokin Etxaniz eta Igor Oruesagastik Joseba eta Aitor Oregi anaien aurka neurtuko dituzte indarrak.

Mahai-ingurua eta pilota jaialdia ere iragarri dira martxoaren 30 eta 31rako

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Amets



• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak

• Zango erremolkeak

• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

Emakumeok eta Bergarako alderdi politikoak

Martxoaren 8a bazetorrela eta, Bergarako EGIZAN eta Jardun elkarteko emakume taldea elkartu ginen, egun honen inguruko kanpainatxo bat antolatze-ko asmotan.

Hitzaldiak, afaria, etab... antolatu genituen. Hitzaldi hauetako baten izenburuak honela zioen: "Emakumeen egoera Bergaran" eta herriko alderdi politiko ezberdinak gonbidatu genituen bertan beraien eritzia eman eta aurrera begira dituzten asmoak ezagutu asmoz; izan ere laister dauzkagu Udal Hauteskundeak eta alderdi bakoitzak bere programan emakumeon arazoekin zer planteamendu daukan ezagutzea interesgarria iruditzen zitzaigun.

Gonbidapenak egin genituenean guztiak agindu ziguten etorriko zirela eta honela jarraitu genuen hitzaldion antolaketarekin. Baina, Martxoaren 9a heldu zen, hitzaldiaren eguna, eta Kultur Etxean Herri Batasunaren ordezkaria baino ez zen azaldu. Eusko Alkartasunak azken momentuan abisatu zuen Kontxi Irizar zela etortzekoa baina kanpoan zegoela eta, ez zela inor agertuko; Eusko Alderdi Jeltzalea, inor ez zeukala argudiatuz, ez zen azaldu ere egin eta PSE-EE-ren arrazoi edo aitzakiarik ezagutu ere

ez dugu egiten.

EGIZANen eritziz, hitzaldira azaldu ez ziren alderdiek garbi utzi ziguten zer nolako garrantzia ematen dioten emakumeon egoerari eta hemendik abiatuz ez zaigu zail egiten Udal politikan gurekiko izango duten jarrera zein den asmatzea.

Datozen hilabeteetan, hauteskunde garaia alegia, asko hitzegingo digute ongizate eta emakumeon arazoei buruz, baina oraintsu erakutsi digutenarekin nahiko daukagula uste dugu.

Bestalde, hitzaldiaren antolatzaileen ganako errespetu gutxi daukatela ere erakutsi dute, ez baita serioa hitzaldi egunean bertan abisatzea inor ez dela etorriko; aspalditik zekitenean egun horretarako zer konpromezu zeukaten.

Bueno, guri behintzat, gauzak oso garbi erakutsi dizkigute eta lehendik konfidantza gehiegirik ez bagenuen ere alderdi politiko hauekin, oraingoan izan genitzakeen zalantza gutxiak ezabatu dizkigute. Emakumeok jo eta ke jarraitu beharko dugu borrokan geure eskubideen alde eta Bergaran konkretuki badakigu nortzukin ez garen bidean topatuko ihes egingo baitigute.

BERGARAKO EGIZAN

Tiira biraka

ALEX UGALDE

Ezkontzaren ostean, Infantak lore sorta bildutako jendetza artera bota zuen.



Luzianok, 32 urte, lejonario, yonki, eta gartzelan izandakoak hartu zuen...



Zer moduz Luziano, nola sentitzen zara?



◆ **Ostiraleko Plenoa**

Aurreko ostiralean egindako Plenoan alderdi guztiek aho batez onartu zuten Elkarri, Gesto por la Paz, Amnistiaren Aldeko Komitea eta Senideak taldeek aurkeztutako mozioa. Bertan elkarrizketa eta distentsiorako kultura aldarrikatzen zen. EAko zinegotziak ez ziren Plenora aurkeztu.

◆ **Erakusketa Pol-Polen**

Maltzaga-Urbinaren inguruan Gatzagako biztanleek landutako proiektua igandera arte egongo da ikusgai Pol-Poleko erakusaretoan.

JAIOTAKOAK

Iurdana Otermin Bergaretxe
Martxoak 20

HILDAKOAK

Juana Elkoroiribe Lizarralde
Martxoak 21, 95 urte
Luis Txintxurreta
Etxebarriarteun
Martxoak 22, 53 urte

Angiozar bailarakoek ez daude ados Ibarako bidegurutzearekin

Angiozar Bailarako Batzarrak firma bilketari ekin dio Angiozar bidean egiten ari den rotondaren aurrean bere protesta azaltzeko. Angiozar Bailarako Batzarreko (ABB) kideen ustetan, *"rotonda gaizki egin da orain lehen baino arrisku gehiago dagoela uste dugu. Bergara alde-runtz irtetzeko ez da ondo ikusten, bide erdiraino irten beharra dago kotxerik datorren ikusteko. Eta Bergaratik sartzerakoan ere kurba bruskoa egin behar da eta beste karrila inbadi-du barik oso nekeza da. Arrasatera bidea hartzeko ere lehen 360ºko kurba hartu behar zen baina orain arazo hori ere ez da konpondu jendeak zertxobait lehenago dagoen desbiazioa hartzen jarraitzen baitu".*

300 firma batu

ABBk dagoeneko 300




Angiozarrera bidea hartzeko bidegurutzea ez da hasieran uste bezain ondo geratu Angiozar bailarako bizilagunentzat.

firma inguru batu ditu etxez etxe egindako bilketa eta tabernetan lagatako orriek esker. Bertan rotondaren konponketa eskatzen dute eta datorren astean Bergarako Udalarari idatzia bidaliko diote. *"Udala ere dagoeneko konturatu da Diputazioak gaizki egin duela eta bere protesta bidali dio. Baina Udaletik ez digute orainarte inolako*

esplikaziorik eman. Udalak Diputazioari eskatu zion obra hori egiteko eta oraindik ez dakigu zein helbururekin, arazoa ez baita ezertan hobetu. Obra egiten ari zela, ikusten zen zer gertatu behar zen eta orain zertxobait konpontzen hasi direla ikusten da, bidea bestu dagoen lekuan zerbait zabaldu dute eta".

Alderdi politikoek ia prest dituzte zerrendak



Juan Mari Garitano eta Andrés Díez, EA eta IUko zerrendaburuak.

Alderdi ezberdinak hauteskunde munizipalarako zerrendak osatzen ari dira egunotan. EAJk atzo gaueko Ez Ohizko Uri Batzarrean erabaki behar zuen bere zerrenda eta oraingoz Victoriano Gallastegi bigarren aldiz zerrendaburu izango dela jakin daiteke. HBk oraindik ez du zerrenda onartzeko asanbladarik egin baina lehen aurreratu genuen bezala Maite Aristegi izango da HBko alkatetzarako hautagaia. EAK, berriz, martxoaren 30ean aurkeztuko ditu bere hautagaiak; lehen 5 postuetan Juan Mari Garitano, Josean Etxeberria, Juanito Garitano, Kontxi Irizar eta Bittor Gorrotxategi izango dira. IUk jakitera eman duenez, Andrés Díez Timofeva eta Isabel Salud joango dira zerrendaren lehen bi postutan eta, azkenik, PPkoek adierazi digutenez, astebukaera honetan bertan erabakiko dute Bergarako udal hauteskundeetara aurkeztu diren ala ez.

◆ **Udaltzaingoaren oharra**

Txakurrek utzitako zikinak direla eta, Udaltzaingoak bide publikoetan, ibiltokietan zein jardin edo parkeetan txakurrek egindako hondakinak uztea debekatuta dagoela gogorarazten du. Hori betetzeko ahaleginak egin behar ditugu gure kale eta solasaldiko guneetan zikintzeko beldurrik gabe ibili gaitezten. Hori lortzeko guztion laguntza eskatzen du Udaltzaingoak.

◆ **Bideo proiektzioa**

Beartek antolatuta, astelehenean Pierre Bonnard margolari frantsesari buruzko bideo proiektzioa izango da 7etan Kultur Etxean.

◆ **Kotxe bati sua**

Ezezagun batzuk su eman zioten astelehen gauean Bergarako ertzain baten kotxeari. EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Udal Gobernuak salatu egin du atentatua eta aipatutako ertzainari, beren familiari zein Ertzaintza osoari elkartasuna adierazten diete. Bukatzeko, herriari dei egiten diote Ertzaintzarekin solidarizatu eta honelako ekintzak burutu zein defendatzen dituztenak baztertzeko.

◆ **Hitzaldia**

Komite Internazionalistak antolatuta, "Hegoaren miseria iparrak sortzen du" hitzaldia izango da astelehenean 7.30etan Kultur Etxean.

◆ **Oldartzen prozesua**

Bihar larunbata Oldartzen prozesuaren enmendakinak aztertzeko bilera egingo da 15.30etan Arrano Zaharrean.



Hainbat opari jaso zituen Jose Luis Loidi "Rosli"-k.

Ongi etorria 4 urte preso egon den Jose Luis Loidi "Rosli"ri

Jende ugari Gestorek Plazan antolatutako ekitaldian

Asteazkenean, 4 urtez preso egon den Jose Luis Loidi "Rosli"ri ongi-etorria egin zitzaion San Martin plazan. Gogoratuko duzuen bezala orain 4 urte espetxeratu zuten Loidi ETArekin kolaboratzearen akusaziopean eta orduan Udaleko zinegotzia genuen.

Loidi asteakenean arratsaldeko ordubata aldera irten zen Herrera-ko espetxetik eta 7ak inguruan ailegatu zen Bergarara. Plazara jendearen txalo artean heldu zen eta Gestorek antolatutako omenaldia jaso zuen jarraian. Bertan, besteak beste, Xamatx dantza taldeak, Aitor Sarasua eta Ainhoa Agirreazaldegiren bertsoari, Kobok dultzainero taldeak eta trikitilariak hartu zuten parte.


Ondoren, Jose Luis Loidik hain-

bat opari jaso zituen Labegaraieta-ko bere koadrilakoekin, Maite Guridiren (bergarar presoaren izenez) edota Senideakeko kideen eskutik. Azken hauek, preso, errefuxiatuta eta deportatuta dauden bergarar bakoitzeko lora bana eskaini zioten. "Rosli"k Plazan bildutako guztiei eskerrak eman eta kartzelan geratu diren bergararrak oroitu zituen; "oso nekeza da egoera hone-tan berba egitea, hainbeste jende-aren aurrean, oso nerbiooso nago. Jo dizkidazuen txalo guztiak preso daudenentzat dira. Herri honen askatasunaren alde duten onena ematen ari dira eta laister gure artean izatea da nire desioa".

Ekitaldiaren ostean luntxa eskeini zen Artatse elkartearen ongi-etorriari amaiera emateko.

BOLSOS BERGARA, S.L.

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA,
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak.

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak



GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN BARIK

Zerkaosketa, 17 behea ARRASATE
Tfnoa: 79 20 18

TXORIMALO

NAHI DUEN EDONORK PARTE HARTU DEZAKE, BAKARKA
ZEIN TALDEAN.

DISEINUA ETA ERABILITAKO MATERIALA LIBREAK
IZANGO DIRA. ARDATZ BAT IZAN BEHARKO DU.

HIRU TALDE OSATUKO DIRA:

1. 14 URTETIK BEHERAKOAK
2. 15-60 URTE BITARTEKOAK
3. 60 URTETIK GORAKOAK




SARI HAUEK BANATUKO DIRA:

1. IRABAZLEARENTZAT: 50 HAURRENTZAKO EGUN BATEKO BIDAIA.
2. IRABAZLEARENTZAT: 15.000 pzta. BIGARRENARENTZAT: 10.000.
3. IRABAZLEARENTZAT: 15.000 pzta. BIGARRENARENTZAT: 10.000.

SARIAK ERRAMU ZAPATUKO FERIXA LEKUAN BANATUKO
DIRA EGUERDIKO ORDUBATEAN.

IZEN-EMATEA: JARDUN ELKARTEAN (MASTERREKA, 13
☎ 76 08 19). AZKEN EGUNA: APIRILAK 5.

ERRAMU ZAPATUA
APIRILAK, 8



Lehiaketa

Irudimena landuz.....

Udaberriak zer ekarriko digu?

NEGUA jada joan da eta Udaberria jada atarian daukagu. Udaberriak loreak eta maitasunak ekarriko dizkigula ia ziurra da baina zer gehiago ekarriko digu odola nahasten duen urtaro honek? Zer? Zer?

HORI ezin dugu jakin baina badakiguna zera da: orain arte joan diren 1995eko hiru hilabete hauetan arazo ugari estatu mailan eta arrakasta eta poztasun asko eman dizkigute kirol eta kultura mailan.


GAUR EGUN Espainian politika mailan arazo ugari ditugu: Roldán, Belloch, González, PP eta abar luze-luze bat baina honetaz aparte badaude notizi onak ere. Euskal Herrian **ELKARRIK** bakearen alde lan egiten dihardu eta sinatzea ez da gutxi.

Bestalde, pezeta bezala A ereduan ikasten zuten ikasle kopurua jaitsi egin da eta honek zera esan nahi du: Gipuzkoan hiru urteko berrehun haur baino ez direla A ereduan matrikulatu. Ea honelako albiste onak ekartzen dizkigun Udaberriak eta ez bestelakoak.

"Horrelako notiziak behar ditugu eta posible balitz askoz hobek. Udaren atarian komentatu behar"

KIROL ARLOAN lehenengo poza Añorga Elkarteko neskek eman zuten futboleko Espainiako txapelkun bilakatu zirenenan. Ondoren, Taugres-ek Kopako txapelketa eskuratu du eta Europakoa lortzeko zorian egon da. Eta hau gutxi balitz hor dugu Bidasoa Europako Finalean, Taugres bezala.

HORRELA KO NOTIZIAK nahi ditugu eta posible balitz askoz hobek. Udaren atarian komentatu behar.



.....9 galdera motz

Elorrion bizi da eta Aranzadi Ikastolan soinketa klaseak ematen ditu. Athletic zalea da eta Fondoko Eskia egiten du.



Nekane Zubizarreta
Soinketa irakaslea

- 1 Zenbat urte dituzu?**
26 urte.
- 2 Kirolik gustokoena?**
Guztiak. Gehien egiten dudana Fondoko Eskia.
- 3 Nora joaten zara eskiatzera?**
Pirineotara gehien bat.
- 4 Beste eskolaren batean erakusten duzu?**
Bai, Elorrion eta Durangon soinketa klaseak.
- 5 Ikasleok, formalak al gara?**
Orokorrean bai; batzutan lana ematen duzue...
- 6 Zer egiten duzu denbora librean?**
Kirola, lagunekin irten...
- 7 Zein futbol talde gustatzen zaizu?**
Athletic-a eta ondoren, Real.
- 7 Zein abeslari gustatzen zaizu?**
Danetik, bakalaua gutxien.
- 9 Mutil lagunik baduzu?**
Bai.

Jolasean.....

Hizki Zopa

Kurki itzazu 10 hegazti, 7 ugaztun eta 4 narrastiren izenak

SOLUZIOAK:

- UGAZTUNAK: Astoa, Arranoa, Belea, Azena, Belea, Balia, Gazta, Salora, Txerria, NARRAZTIAK: Usua, Zikoina, Zozoa, Uretxindorra, Txepetxa, Kaitoa, Flamingoa, Enara, Belea, Arranoa
- HEGAZTIAK: Sugandia, Krokodiloa, Dorrika

M	A	S	U	G	A	N	D	I	L	A	K	U
F	I	R	S	G	I	Z	A	K	I	A	R	S
L	F	L	A	M	I	N	G	A	A	R	O	O
T	U	S	A	T	O	R	R	A	E	R	K	A
T	X	E	R	R	I	A	O	T	D	A	O	D
D	U	E	D	L	L	O	X	D	N	A	D	A
O	A	S	P	S	A	I	A	I	R	N	R	I
R	S	E	U	E	N	A	O	A	O	O	I	R
D	T	N	L	D	T	K	M	X	I	A	L	E
O	O	A	O	E	I	X	N	R	D	H	O	Z
K	A	R	U	Z	B	O	A	Z	O	R	A	A
A	R	A	N	A	A	T	X	A	E	L	A	B
A	O	Z	O	Z	S	U	G	E	A	Z	A	B

Txistek



J. Migel Etxeberria
17 urte

KARAKOLA ETA AGUREA

Badoa karakol bat eta derrapatu egiten du.
- Grazia egin dizu?
- Ez.
Ba, harrapatutako agureari ezta.

FEDERIKO

Badoa mutiko bat sendagilearengana eta esaten dio:
- Esaten dutenez ez dakit FEDERIKO ondo esaten.
Eta medikuak dio:
- Esan ezazu berriro eta poliki.
- Fe-de-ri-ko.
- Ba esan besteei ondo esaten duzula.
Etxera joaten da eta amari esaten dio:
- Ama ura federikotik.



Angiozarko Elixamendi ermita oso egoera kaskarrean dagoen arren, zapatu honetan inguruko haur ugari bertaratuko da bedeinkazio elizkizunetara.

Herriko ermitak laguntza beharrean

Elixamendi, Santa Katalina eta San Esteban jausteko arriskuan daude

Bihar, martxoaren 25ean, Anunziaziño egunean, Angiozarko Elixamendi ermitan egun handia izango da. Elixamendira inguruko haur ugari joango da bedeinkazio elizkizunera. Elixamendi, kandelan argiek ere piztuko dute. Ermitaren egituraren egoera, ordea, ez da hain argia. Hala ere, ez da arriskuan dagoen ermita bakarra.

Angiozartik Elgetara doan bidean dago Elixamendi, Mainddao auzoan. Historiagileek diotenez, inguruetako elizarik zaharretakoa. Haurtxo Jesusi bularra ematen diharduen Ama Birjinak jendea urtean lau aldiz izaten du

aurrean. Biharko egunez, urteroko tradizioari jarraituz, eta haurren eta haurdun dauden emakumeen zaindaria izaki, jende ugari bilduko da ermita zaharrean.

Jose Angel Mikeok esan digunez "sasoi batean Durangaldetik, Elorrio, Elgeta eta urrutia-gotik etortzen zen jendea fedeak bultzatuta". Oraindik ohiturak bizirik jarraitzen du, "duela bi hilabete Beasaingo gizon bat etorri zen bedeinkazio eguna noiz zen galdetzka, bera txikitzen bertan bedeinkatu zutelako". Angiozarkoek ere fede handia diote: "Angiozarren parrokia eta beste ermita batzuk izan arren, Elixamendi berezia da denontzat".

Elixamendi behera dator

J.A. Mikeok dioenez, "Ermitaren aurrealdean dagoen lurra eta zelaitzoxa hondoratzen eta mugitzen ari da eta erakuntza oso kaltetuta dago. Egitura mugituta du, bormak brintzatuta, ura sartzen da..."

Duela 7 urte ermitaren egoera ikusi eta ez erortzeko Angiozarkoek Diputazioari proiektu bat aurkeztu eta laguntza eskatu zioten. Oraindik erantzunaren zain daude. Zerbait egiteko beharra ezinbestekoa eta berehalakoa denez, "Anunzia-

MEMESA

P
phanton

IRIMO

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

ziño egunean basi eta Pazkua bitartean sinadurak bilduko ditugu. Sinadurak biltzearen helburua Elixamendiren egoerari buruzko ikerketa egin eta 96ko aurrekontuan konponketaren proiektua sartzeko eskatzea da".

Beste ermita batzuk ere arriskuan

Elixamendi ez da erortzeaz dagoen Bergarako ermita bakarra. Imanol Sorondo, Bergaran 25 urtean apaiz izan denaren arabera, Bergaran garai batean 38 ermita zeuden. Gaur egun, 20ren bat geratzen dira; hemendik urte batzuetara gutxiago izango dira. "Gipuzkoan ez da hainbeste ermita izan duen herririk".

Kapirixo, bailarako ondare artistikoa zaindu eta gordetzeaz arduratzen den taldea kezkatuta dago ermiten egoerarekin. "Ermita eta baserriak dira gure eraikuntzarik zaharrenak; gure ondare apurra bertan gordetzen dugu eta balio historiko handia dute. Herrian obrak egitea oso ondo dago baina gure ondare artistiko zaharra ezin da abaztu".

Kapirixoren ustez, ermiten denen laguntza behar dute: "ondarea herriarena da. Guretzat titularitateak ez du garrantzirik. Pribatuak nabiz publikoak, ermiten la-

Autopistako peajea San Antonen?

Xabier Aranburu museologoak adierazi digunez, San Anton ermita desgertzeko arriskuan dago. DEBASAK aurkeztutako Maltzaga-Urbina aurreproiektua gauzatzen bada, San Anton bota egingo da, bertan egingo baita Amillaga peajea.

Museologoaren esanetan, San Antonek balio handia du. Arrazoen artean hauek nabarmendu ditu:

- Aintzinatasuna: 1520koa baino lehenagokoa da.

- Auzoan funtzio sozial handia betetzen du: urtean San Anton eta San Anton txiki egunetan ez ezik hildakoen aldeko mezak ere ematen dira. Norbait hiltzen denean ere kanpaia jotzen da.

- San Anton oso zainduta dago; auzokideek erabili eta maite dutelako da.

Xabier Aranburuk DEBASari Maltzaga-Urbina aurreproiektuaren kontrako alegazioa egin du. Hauxe da bertan eskatzen duena: edo Amillaga peajea beste leku batetik pasatzea edo bestela, ermita



harriz harri San Anton auzoko beste tokiren batera eramatea.



San Martzialeko ermitaren teilatua orain dela gutxi konpondu da.

guntza beharra dute eta bor dago gure lana: ermiten garaia eta ondarearen balioa finkatu eta fitxa teknikoekin ikerketa bat egingo dugu. Orain arte auzolanean zaindu dira ermitak baina auzotarrei lagundu egin behar zaie, denon lana da ermitak gordetzea".

Kapirixoren ustez, oraindik ez dago azterketa zehatzik eginda, baina begibistakoa da ermita batzuk beste batzuk baino hobeto daudela. "San Blas, San Anton, San Martzial, San Migel... okerrago daudenekin al-



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

deratuta, ondo daudela esan dezakegu. Gure us-tez, hiru dira oso egoera txarrean daudenak: Eli-xamendi, Santa Katalina (Altos Hornos gainean) eta San Esteban (San Prudentzio) ezer egin ezean jausi egingo dira. Santa Katalina brintza-tuta eta apuntalatuta da-go, baina apuntalamen-dua berritu eta zaindu egin behar da. San Este-ban ere oso gaizki dago: brintzak ez ezik, teilatua ere oso kaltetuta dauka".

Kapirixok aipatutako ermitak berehala konpon-tzeaz gain mantenimendu plana (kristalak berritu, pintatu, sitsaren kontrako likidoak eman, e.a.) egite-a proposatzen du, beti ere auzotarrak kontuan izanda.

Kapirixok etorkizun ona ikusten die ermitei: "jendea lanerako prest eta gogoz dago. Dirua es-kuratzen bada ez da arazo handirik izango"

Udalak plangintza egina du

Xabier Aranburu udal museologoaren arabera, ermitei buruzko plangin-tza egina dago. Plangin-tzak dioenez, gaizki dau-den ermitak konpondu eta gainontzekoak zaindu egin behar dira. Dagoene-ko urrats batzuk emanda daude, baina prozesua lu-zea eta zaila izan daiteke eliza, auzokoak eta Udala jarri behar direlako ados.



Kanpazarreko San Migel (San Migel monte), Angiozarko Goimendi auzoan.

Bergarako ermitei buruzko hainbat bitxikeria

IMANOL SORONDOK JASOTAKOAK

- Ermiten izenetan modak izan dira eta izen desberdinak izan dituzte. San Antolin, esaterako, hasieran San Kolo-man izan zen. San Blas eta Santa Ka-talinak ere izen desberdinak izan di-tuzte.
- Elosuko parrokia hasieran ermita izan zen. XVI. mendean egin zuten pa-rrokia, inguruan meza eta elizkizuneta-rako parrokiarik ez zegoelako. Osin-txuko eta San Prudentzioko ermitak ere horregatik bihurtu ziren Parrokia.
- Bergarak zubi asko ditu eta zubi hori-en ondoan ermitak daude edo zeuden: San Prudentzio, San Antonio, San Lo-rentzo (?), San Adrian (Ondartza), Santo Tomas, San Fausto, Osintxuko eliza eta Santa Marina.
- Gaurko Santa Luzia baserria garai batean izen bereko ermita izan zen. Sanposte baserrian, berriz, San Faus-to zegoen.
- Osin izeneko hiru tokitan hiru eliza edo ermita daude: Osin/ondo-n (Oxi-rondo) Santamaina, Be/Osin-en San Fausto, Osin/txu-n Emeterio eta Zele-donio. Ermitarik gabekoa Agirre/Osin (Agorrosin) da.
- Harrigarria, baina ermita bakoitzak diru kontuak jasotzen zituen liburua zuen. Harrigarria, garai hartan oso jen-de gutxi baitzekien idazten.
- 1769an Gipuzkoako Batzar Nagusiak ermita guztiak botatzeko erabakia har-tu zuen. 1793ko agindu bati esker daude oraindik zutik.

ZAPELAITZ
Taberna
 Eguneko menuak
 astelehenetik ostiralera
 San Lorentzo, 25 BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Garnish
Bitxitegia
 San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Osasuna

Gorputz depurazioa

- **Udaberria hasi dela eta, zein eragin izaten du gorputzaren gan?**

- Alde batetik mentalk aipatuko nituzke: konzentrazio falta, umore txarra, gogo edo indar falta (sasoi honetan depresio gehiago izaten dira). Eta bestetik fisikoak: begiak gorrituta, mingaina zuri samarra, buruko miñak, begi azpiak haundituta... Azken batean gorputz guztia motel dago eta hori garbitze premian dagoelako izaten da. Urteko sasoirik txarrenak udazkena eta udaberria dira: udazkenean horriak jausten dira (horrek guregan eragina izate du nolabait) eta udaberrian odola berriz martxan jartzen da, esaten den moduan "udaberriarekin odoloa irekitzen" izaten dugu eta garbiketarako sasoirik onena da, berriz indarrez hasteko.


- **Zertan datza depurazioa?**

- Depurazioa gorputzak aldian behin egin behar duen garbiketa litzateke, neguan jaso ditugun toxinak kanporatu


egin behar direlako. Neguan ez da ejerziziorik egiten, elikaduran ere proteina eta grasa larregi izaten da eta etxean denbora gehiegi ematen dugu (horren ondorioz eta berogailuen eraginez gorputza ez da behar beste oxijenatzen).

- **Zelan egin behar**

"Neguan jaso ditugun toxinak kanporatu ahal izateko gorputzak aldian behin garbiketa edo depurazio bat eskatzen du"



Gorputza egoki oxijenatzeko sasoi honetan kirola egitea komeni da.



ALBERTO ALTUBE
(Dietetiko)

dugu garbiketa?

- Ejerzizioa egitea gomendatzen da. Alde batetik haize garbia hartzeko aukera dagoelako eta bestetik, izerditzera-

koan, poroen bitartez zikinak botatzen ditugulako. Elikadurari dagokionez, laranja edota limoien bitartez depurazioa lor dezakegu. Jausita sentitzen garenean askotan C bitaminaren faltagatik izaten da. Laranjekin (egunean gehienez 3 kg. hartu daitezke) hezurak gogortzen dira eta motel-tasuna gaintitzen da.

Limoiarekin, berriz, kontu gehiagoz jokatu behar dugu. Anemiko eta jende nerbisioarentzat ez dira onak. Arthritis, artrosis eta gota edo erreumak jota daudenentzat ordea oso egokia da, toxinak botatzeko metodo ona baita. Baina luzaroan egiten bada kontuz ibili behar da desmineralizazioa eman daitekeelako.

- **Zein janari hartzea gomendatzen duzu?**

- Udaberria berde garaia izaten denez, janari berdeak dira egokienak: entsalada, fruta eta barazkiak. Arraina astean 3 bat bider hartu daiteke eta haragia hartzekotan, oilaskoa (astean behin).

Laranjak, eta limoien garbiketa 15 egunetan egitea nahiko izaten da. Laranjak, egunean 3tik 5era eta limoiak, hasi batekin, hurrengo egunean 2 eta horrela 7ra arte.

Hurrengo astean kontrakoa egin: 7tik 1era jeitsi arte. Gorputzak eskertuko du.

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Siaska

Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Euskaldunok arrazistak garela uste duzu?




Mariano Begiristain
63 urte, jubilatua

Ez dut uste. Banakaren batzuk egon daitezke baina orokorrean ez. Nik hemen ez dut ikusi eta kanpoan ere ez, nahiz eta kanpoan ere denetik egon.



Obdulia Andrés
61 urte, etxeoandrea

Ni behintzat ez naiz arrazista eta besteak ere ez dut uste direnik. Hemen guztiak nahiko elkartuta gaude eta kanpoko jendea etortzen bada, zer?



Ion Aiastui
26 urte, ikaslea

Nere ustez bai. Danok gara pixkat arrazistak. Zure arrazakoa edota zure statusekoa ez den pertsona batekin ez duzu berdin aktuatzen.



Izaskun Etxeberria
36 urte, etxeoandrea

Bai, euskaldunok kanpoko jendea lana kentzera etorriko den beldur garelako beti, horren aurka gaude.



Antolin Marchena
46 urte, langilea

Ez, hemen ez baina beste leku batzutan ikusi dut, batez ere hiri haundietan. Hemen kanpoko jende gutxi dago baina hiri haundietan normalagoa da.



Maria Dolores Lete
46 urte, langilea

Pixkatxo bat bai. Oso geuriak gara eta beti pentsatzen dugu munduko onenak garela.

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA




KORTA-ZAR

Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62




San Jose eguna

Iragan igandean, marketing handiz iragarritako San Jose eguna ospatu zen. Txirotasunaren inguruan bizi izan zen pertsonaia langile eta apala, helburu komertzialak direla eta, kolonia, taladro, korbata, gerriko eta beste jantzi moeta guztietako patroï bihurtu digute. Hala ere, nire komentarioa ez doa zuzen-zuzen bide honetatik. Kristau erlijioak askotan erakutsi du aparteko trebezia antzinako kulto paganoak bereganatu eta kristau kutsua emateko. Hor ditugu, adibidez, hainbat trikuharri gainera eraikitako elizak edo errito paganoen sakralizazioak (Bataioa, Gabonak, San Juan...).

Zer dela eta San Jose eguna, artisauen patroïa, Martxoaren 19an? Erromatarrek egun honetan hasi eta, Minerva jainkosaren inguruan, bost egunetako jaiak (*quinquatus* izenez ezagutzen zirenak) ospatzen zituzten. Izan ere, Erromako jainkosa garrantzizko hau, artisautzan eta eskulanetan zihardutenen patroïa zen: jostunen, ehuleen, bordadoreen, sokagileen, margolarien, eskultoreen eta abar luze batena. Festa hauetan irakaskuntza munduak ere hartzen zuen parte: egun hauek ziren, urritik ekainera bitartean ikasleek zituzten jai bakarrak eta garai hartako irakasleak egun honetan jasotzen zuten urte osoko soldata

Halaber, beste kasu askotan bezala, jaien sustraiak urrutirago joaten zaizkigu eta, orain ere, jaiak egutegiko egun seinalatuetan ospatzen direla ikusten dugu, hau da, udaberriko ekinozioaren inguruan: udaberriari ongietorria emateko eratu omen ziren Minerva jainkosaren inguruko jaiak. Ikus daitekeenez, San Jose egunaren inguruan antzeko gauzak ospatu eta gertatzen dira, orain ere.

Xabier LARRAÑAGA



Hipokresiaz gainezka

Nola definitu bada, izenburu hori erabili barik, Lasa eta Zabalaren gorpu torturatuaren aurkikuntzak eragin duen erreakzio uholdea? Asko izanda ere, ez daukat aurkikuntzari buruz ditudan zalantzez galdetzeko asmorik.

Orain sentitu, pentsatu eta esatera noana beste gauza bat da: egun hauetan argibideak eskatzen ari diren gehienek jakin badakite Gobernuaren laguntza zuzena izan barik GAL ez zela sortuko, badakite tortura barne-ministeritzaren arma erabiliena dela, badakite atxilotu gehienek gutxienez tratatu txarrak jasan behar izaten dituztela... eta ez dute horren kontra, gaurdaino, sekula ezer egin eta ezta ezer esan. Orain ari dira, baina ez diet sinesten, bakea, askatasuna, giza-eskubideak eta demokrazia bakarrik ahoan darabiltzatelako, inoiz ez ekintzetan.

Jendilaje horrek izan duen erreakzioa ikusita, Fermin Muguruza abeslariari elkarriketa batean irakurri nion esaldia ekarri nahi nuke Berrigarako zutabetxo honetara: "Egunen batean bidez tortura saioaren bat filmatzea lortzen bada, herri honek flipatu egingo du". Arrazoi zuten Ferminek, politikoez, eta baita ixil-ixilik besteen arazoetan sartu nahi barik bizi diren herritarrek, zerbait egiteko bideo-irudi horien zain daude. Edo behintzat hori ematen du.

Beñardo KORTABARRIA

LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



Amama Juanita ELKOROIRIBE LIZARRALDE

*Amamaren aulkia
ago sutondoan.
Aren ipuirik al dek
ik jaso gogoan?
Ik ez? laratzak? ezta...
Ez uste gozoan
geunden ta gure poza
betiko da joan.*

LIZARDI



Zure loibek maitasunez



Korrika Bergaran

Atzo heltzekoa zen Korrika gure herrira eta hainbat ekitaldi izan ziren igandean Gasteizen bukatuko den Korrikari ongi etorria emateko.

Bergarako ikastetxeekin Korrika txikia egin zen berotzeko eta Aske atsedentaldia emateko. Ondoren Udaletxeko langileek, AEK euskaltegiak, Gestorak, Jardun Elkarteak, Herri Batasuna-Artate Elkarteak eta Aranzadi Ikastolak herriko ibilbideko 6 kilometroak egin zituzten jendearen txalo artean. Nahiz eta kilometro bana erosi Ipintza Institutuak eta Mariaren Lagundiak ez zuten korrikarik egin. Bestalde, Korrikaren azken jaira Gasteizera joateko autobusak aterako dira igandean goizeko 9.30etan frontoitik. Izenematea, Pol-Polen edota Kortazarren.



Argazkian ikus ditzakezue Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako aerobic ikastaroan aritzen diren emakumeak.

Bat, bi, besoak gora...

Herriko 45 bat emakume aerobic ikastaroa ematen ari dira Ipintza Institutuan joan den urtik ekainera bitartean. Nuria Rodríguez Ibarra eibartar irakaslearen eskutik, astean 3 orduz izaten dituzte klaseak eta orainarte forma ezin hobean daudela erakutsi dute. Bi txanda dira: 7etatik 8etara lehena eta 8etatik 9etara bigarrena. Udaberrian sartu garela eta forma errekuperatu nahi duenak badaki nora jo...



Zuhaitzak landatzen

Larunbatean Zuhaitz Eguna ospatu zen San Martzial inguruan eta 50 bat gaztetxo hurbildu zen bertara pago, haritz edota gaztainondoak landatzeko asmoz. Eguraldiak ere lagundu zuen eta izan ziren bai zuhaitzak landatzera animatu ziren hainbat guraso. Ondoren, egindako lanaren truke, ogitartekoa eta freskagarri bat jaso zuten guztiek. Inguruak eskertuko du bai beraien lana...

KONDE

 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57
PANADEROKUA

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
 D. Irola, 3 - Tlf. 761235
 Matxialegi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
 T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Laguntza bila

Aritz Saidi Olaortua 11 urteko antzuolarrari egin behar dioten ebakuntza dela eta, dirua batzeko kontu korronte bat zabaldu da Euskadiko Kutxan (040.0.00676.1 zenbakia).

3 urte zituela operatu zuten Donostian, baina emaitza ez zen behar bezain ona izan. Ordutik Estatu osoko hainbat eritxetan izan dira Aritzi beharrezko dilatazioak egiteko (esofagoa konduktua gehiegi hestutu omen zioten) baina Seguritate Sozialeko bidaietarako ez dute inolako laguntasunik jaso-



Aritz Saidi Olaortuak beharrezkoa du esofagoan ebaketa egitea.

tzen azkenaldian. Orain, Bartzelonako mediku pribatu batek esofagotik operatzeko aukera dagoela esan die, lehengo operazioa askatu eta berriz ere berdina egiteko. Oso operazio

delikatua da eta Aritzen gurasoek segurtasun osoa eduki nahi dute. Bien bitartean dirua batzeari ekin diote eta baliteke Aritzen aldeko hainbat ekitaldi antolatzea ere. Ari-

tzek bizitza normala egiten jarraitzen du (5. maila egiten ari da Antzuolako Ikastolan eta futbolerako zaletasun handia dauka) nahiz eta aldi behin arazo larriak izan.

Zertan dihardute ba?




Marina Hernando

29 urteko geografo bergarrak parte hartu du Kutxaren Aula 3ak ekologiari eta ingurugiroari buruz antolatutako hitzaldi zikloan, Elena Oiarbide geologoarekin eta Esteban Egilegor biologoarekin batera. Bertan ingurugiroa errespetatzeko hainbat aholku eta teknika azaldu dituzte, besteak beste, zarata gogaikarriak nola ekidin edota herrietan diren kontenedoreak egoki nola erabili. Tolosan izan ondoren, aste honetan Azpeitian egon dira eta apirilean Beasainen eta Ordizian eta maiatzean Arrasaten eta Irunen emango dituzte hitzaldiak.

Goenkalemania

Idolaz Antzuolako euskara elkarteak antolatuta, aurreko ostiralean **Goenkale** telesaileko hainbat aktoreekin mahai-ingurua izan zen Antzuolako zine aretoan. Bertan izan ziren Miren Gojenola (Amaia Goenkalen), Mikel Laskurain ("Puskas"), David Errasti (apaiza) eta Mikel Garmendia (Jose Mari). Jone Larrañaga moderatzaile izan zelarik, guztiek, umoretsu, telesaileko hainbat kontu esan eta zinea betetzen zuen jendearen galderei erantzun zieten. Antzuolarren artean badute bai jarraitzaile ugari....



Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Simon Arrieta, 3

Gorka

OINETAKOEN KONPONKETA

Mota guztietako konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa

Leire Zeziaga

20 urte ditu Leire Zeziagak. Almenen TAFYD (kirolari buruzko moduloa) ikasten ari da eta arratsaldetan piszinetan entrenatzaile ibiltzen da.

- Zure horoskopoa?
- Tauro, baina ez dut sinisten.
- Aspalditik igerian?
- 7 urte nituenetik.
- Eta entrenatzaile?
- Orain dela lautik. Hasieran talde batekin, orain birekin.
- Nolako igerilariak ditugu?
- 83an jaiotako neskak oso onak datoz.
- Entrenatzailearentzat gogorrena zer da?
- Ohitura eta bizio txarrak kentzea.
- Zeuk igerian egiten duzu?
- Bai, egunean 3.000 metro, estilo guztietan.
- Zein estiko da dotoreena?
- Tximeleta. Zailena ere bai.
- Igeria: lana ala hobbya?
- Hobbya.
- Beste hobbyrik baduzu?
- Eskiatzea, baina ez naiz joaten.
- Kirola, ikusteko ala egiteko?
- Egiteko, baina ikustea ere



"Gustokoen dudan igerilaria Lopez Zubero da eta estiloa, berriz, tximeleta, zailena den arren. Igerian egiteaz gain eskiatzea ere gustatzen zait. Oscarrak Forrest Gump pelikulari eta Tom Hanks aktoreari emango nizkieke"

gustatzen zait.

- Piszinarik onena?
- Zarauzkoa. Bergarako kanpoko ere ondo dago.
- Igerian ikasteko zein aholku emango zenuke?
- Urari beldurrik ez izateko eta nagikeria baztertzeko.
- Uretan ibiltzeko ilea zerora moztuko zenuke?
- Ez, ile luzearekin gorroa oso komodoa da.
- Bainu-jantzia ala bikini?
- Bainujantzia.
- Mutilak bainu-jantzi luzearekin ala motzarekin?
- Motzarekin, beharbada horrela ikusten ohituta nagoelako.
- Igerilari bat.
- Lopez Zubero.
- Telebistako programa bat.
- Goenkale, egunero ikusten dut.
- Datorren astean Oscarra zeini emango zenioke?
- Forrest Gump pelikulari eta Tom Hanks aktoreari.
- Katua ala txakurra?
- Animaliak ez zaizkit gustatzen, baina katua.
- Txiste bat kontatuko diguzu?
- Ehun entzun arren, bat ere ez dut gogoan izaten.
- Haundi egindakoan zer egingo duzu?
- Ahal badut, kirolarekin zerikusia duen edozer gauza.

Agentea:

Ramon IRAEGUI EGUREN



Ramon Maria Lili, 6 behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54
Faxa: 76 41 54

ORDUTEGIA:

Astehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



LAGUN ARO

ASEGURUAK

SANTOS
IRRATI-TB

ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARATUEN
KONTINGENTA

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

ETXEBIZITZA

Duplex bat salgai Masterrreka 6an. Berritzeko aukera. ☎ 13 35 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garaje bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 22 09.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua alokairuan Elgetan. ☎ 76 81 42 (Mertxe).

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisu bat alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauzez).

Jon XXIII enparantzan pisua salgai. ☎ 76 13 75.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea saltzen edo alokatzen da. ☎ 76 21 09.

DENETARIK

Musika bateria salgai. la berria. ☎ 76 08 58.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Braco aleman txakurrak salgai. ☎ 76 10 79.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun akordeoia erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Ezkonduen eraztun bat (aliantza bat) topatu dut. ☎ 76 13 14.

Futboleko bota berriak salgai. 38 zenbakikoak. 5.000 pta. ☎ 76 48 68.

Suzuki DR 350 motoa salgai (SS-AM). Egoera onean. ☎ 76 12 69.

Mobilette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Gimnasiako Van Allen ekipoa salgai. 50.000 pta. ☎ 76 11 43 (4-7.30).

Karta astralak egin eta tarotoak botatzen dira. ☎ 76 07 87 (Jabier).

Korredorezko Biondi bizikleta salgai. Shimano piezak. Oso merkea. ☎ 79 49 30 (Iosu).

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Etxez etxeko garbiketak. ☎ 76 46 14 (Pili).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Ingeles Filologian lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Historiagile bat eskeintzen da genealojia egiteko. ☎ 88 30 72 (Arkaitz).

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta Lanbide Heziketako klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauzez).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 87.

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

HERRAN Etxeak eta SONYk, SONY musika ekipo eder bat zozketatu dute bere bezeroen artean. Zenbaki saritua 782a izan da eta argazkian agertzen den ANA ISABEL GARMENDIARI tokatu zaio. Zorionak!!



Ana Isabel Garmendia saria jasotzen Rafael Herranen eskutik

HERRAN ETXEA

Matxiategi, 3 ☎ 76 12 22

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Laura Laskurain

Laura Laskurainek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu du eta. XIII. mendean Erregeak fundazio eta izate agiria eman zion gure herriari, Villanueva de Vergara ezarriz. Zein Errege izan zen eta zein urtetan gertatu zen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Alfonso X.a Jakintsuak 1268. urtean. Laura Laskurainek jarri du erantzun zuzena eta, beraz, aste honetako 10.000 pezetak berari eman dizkiogu.**

Fernando VII.a Erregeak zezen-festa bat ikusteko egin erazi omen zuen begiratoki hau zein etxetan aurkitu dezakegu?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



emaitzak

▼ KOPA TXAPELKETA

Ozaeta-Arloteak	1 - 5
EH Biterrak-Angiozar	0 - 10
Etxagi-Mongatxurra	1 - 7
Igandekoak-Etxenagusia ...	1 - 14
Txipiron-Kabia	0 - 1
Kayak OJ-Bildurbarek	3 - 4
Ufala-Uve Bikoitza	7 - 6
Eri-Amozkibar	7 - 2
Paok San Juan-Ogizun	4 - 4
Pikapiedras-Labegarieta ..	8 - 2
Bar Canalejas-Kirolzaleak ..	4 - 4
Errotagain-Arkupe	7 - 3
Hartu Zamak-Revienta	5 - 0
Pagomendi-Patxaran Team ..	4 - 2
Shaktale-Nekrofilikos	1 - 6
Ezinleike-Madura	0 - 1



Koparen lehen jardunaldiak ez zuten ez usteko handiegirik eman. Agian Paok de San Juanen eta Ogizunen arteko berdinketa edo Canalejasen eta Kirolzaleak-en arteko emaitza bera izan dira ez usteko nagusiak. Bestela, argi geratu da maila ezberdinen artean dagoen diferentzia Angiozarrek EH Biterrak-i sartutako 10 golekin edo Etxenagusiak Igandekoakeri sartutako 14 golekin.

partiduak

▼ KOPA TXAPELKETA

LARUNBATA

Barruan

9.00: Pikapiedras-Labegarieta

Ogizun

10.00: Paok de San Juan-Ogizun

Labegarieta

IGANDEA

Barruan

9.00: Usoa-La Juve

Ari Ari

10.00: Krai-Ari Ari

La Juve

18.00: Const. Bergara-Aldoka

Patxaran Team

19.00: Pagomendi-Patxaran Team

Hartu Zamak

20.00: Hartu Zamak-Revienta

Pagomendi

Kanpoan

9.00: Txipiron-Kabia

Igandekoak

10.00: Igandekoak-Etxenagusia

Los Txupeta

11.00: Los Txupeta-Ari Ari

OH Zerezos

12.00: OH Zerezos-A Ze Flaxa

Ozaeta

13.00: Ozaeta-Arloteak

A Ze Flaxa

16.00: Etxagi-Mongatxurra

Eri

17.00: Eri-Amozkibar

Patxaran Team

18.00: Soropotroak-Patxaran T.

Amozkibar

▼ LIGAKO PLAY-OFFAK

IGANDEAN

Barruan

16.00: Bildurbarek-Mongatxurra

Antolaketa Batzordea

17.00: Angiozar-Bar Canalejas

Antolaketa Batzordea

komentarioa

Asteburu honetan liga txapelketa pil-pilean jarriko da, Angiozar, Mongatxurra, Canalejas eta Bildurbarek taldeek zabalduko baitute ligako play-offak. Guztira 10 talde arituko dira iazko txapeldunari, Errotagain taldeari, lekukoa hartzeko. Azken talde hau da faborito nagusia orain arte lortutako emaitzengatik eta sailkapenagatik, baina partidu bakar batera edozein emaitza izan daiteke eta ezustekorik nahi ez baldin badute, erne ibili beharko dute txapeldunek. Hor daude eta, txapeldunak huts egiteko erruaren zai Madura eta Kabia taldeak. Baina txapelketa guztietan irtetzen da talde sospresaren bat eta iazkoan Usoa taldeak bete izan bazuen paper hori, aurtengoan denborak esango du nor izango den. Beraz zorte ona play-offean parte hartuko duten talde guztiei eta beti esaten den bezala, irabaz dezala onenak.

Datorren urterako multzoak

A multzoa

- ERROTAGAIN
- MADURA
- KABIA
- ARLOTEAK
- UFALA
- OZAETA
- BILDURBAREK OPEL/LAM
- ANGIOZAR
- BAR CANALEJAS
- MONGATXURRA
- OGIZUN
- ARKUPE

C multzoa

- ERI
- EH BITERRAK
- AMOZKIBAR
- SOROPOTROAK
- KIROLZALEAK
- EZINLEIKE
- LA JUVE
- NEKROFIKOS
- SHAKTALE
- ARI ARI
- IGANDEKOAK
- KRAI

B multzoa

- USOA
- OH ZEREZOS
- PAGOMENDI
- ETXAGI
- REVIENTA
- KAYAK OS JARDINEIROS
- UVE BIKOITZA
- ETXENAGUSIA
- HARTU ZAMAK
- A ZE FLAXA
- NAHIKARI HOOLLIGANS
- KRITERIUM

D multzoa

- CONSTRUCCIONES BERGARA
- TXIPIRON
- LOS TXUPETA
- PATA NEGRA
- PIKAPIEDRAS
- LABEGARAIETA
- ALDOKA MALDOKA
- PATXARAN TEAM
- PAOK DE SAN JUAN

Iker Muruamendiarez Espainiako pelota txapelketan

Iker Muruamendiarezek jubencil mailako Espainiako eskuz banakako final erdia jokatu du Gipuzkoa ordezkatzuz astebukaera honetan, Bartzelona edo Bizkaiko ordezkarien aurka. Irabazle iritetzen bada igandean txapela eskuratzeko ahaleginak egingo ditu.

Buzeo ikastaroa

Apirilaren 1ean eta 8an, Agorrosingo igerilekuetan 14 urtez gorakoentzat buzeo ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak. Ikastaroa goizeko 9etatik 12.30etara izango da.

Aranzabal Lagunartea

Larunbatean Aranzabal Lagunartearen bilera izango da 12etan Kultur Etxean. Zaletuei parte hartzeko deitzen zaie.

Uzarragako igoera

Igandean, goizeko 9.30etan Uzarragako jubencil mailako txirrindularitza igoera jokatu da Antzuolan.

321 kiloko harria gora?

Mikeltxo Saralegik marka berria lortzeko saiakera egingo du larunbatean Antzuolan

Bihar arratsaldeko 6etatik aurrera Antzuolako pilotalekuan Mikeltxo Saralegi harri jasotzaileak 321 kiloko harria jasotzen saiatuko da eta lortzen badu Iñaki Perurenak eta berak duten 320 kiloko marka hautsiko du.

Biharko Leitzako mutilak egingo duen laugarren saiakera izango da eta itxaropentsu agertzen da. *"Bihar errekorra lortuko dudala uste dut. Nabiko ongi prestatuta nago eta lehen esan nuen bezala 6 orduetako saiakera azkarregi etorri zen, errekorra prestatzen abenduan hasi nintzen eta"*. Saralegik 27 urte ditu eta pisu aldetik, 130 kilorekin, forma ezin hobean dagoela aitortu digu.

Aurreko jasoaldiekin alderatuz teknika gehiago landu du biharko jasoaldirako. *"Harria jasotzeko teknika landu dut gebienbat eta entrenamenduetan 321 kiloko harria jaso-*



Mikeltxo Saralegi joan zen asteartean egindako aurkezpen ekitaldian.

tzen aritu naiz. Hala ere, denbora gutxi dago jasotzaileak egiteko eta errurik txikiena ere ordaindu egingo da".

Saralegiren aurretik pelota partidu bikaina ikusteko aukera izango da. Izan ere Berraondo, antzuolarrak eta Apeztegiak, Urretabizkaia anaien aurka jokatu dute. Partidu hau

ETB-DV pelota txapelketaren finalaren errebantxa da eta Berraondo-Apeztegia bikotea orduko garaipena errepikatzen saiatuko da. Ekitaldia ETBk emango du zuzenean eta antolatzaileek adierazi digutenez, sarrierak hainbat tabernatan salduko dira eta horrekin batera Islas Margaritara bidaiari bat zozketatuko dute.



Lasterketa bikaina egin zuen Axen Garitanok joan zen astebukaeran.

Axen Garitano Espainiako txapelkun orde Baqueiran

Pasa den asteburuan Baqueira Bereten jokatuako Espainiako txakur leren txapelketan Axen Garitano B1 kategorian, bigarren postuan sailkatu zen eta sailkapen orokorrean, aldiz, 10 onenen artean izan zen. Txapelketan Estatu osoko 80 partaide inguru izan ziren eta Garitanok gidatutako 6 huskyak bikain aritu ziren 11 kilometrotako zirkuitoan. Bestalde, Julen Narbaiza eta Axen Garitano berak, apirilaren 9an Bergaran jokatu den txakur leren lasterketa aurkeztu zuten joan zen ostegunean. Gorla inguruan jokatu da eta zirkuitoa joan zen urtekoaren antzekoa izango da. Berritasun nagusia partaidetza hobetzeko ezarriko diren dirusariak izango dira.

KARTELDEGIA**► Futbola**

Bergara-Azkuene
Lehen errejionala.
Igandea, 16.45. Agorrosin.
Bergara-Oiartzun
Lehen mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Aloña Mendi
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 19.00. Ipintza.

► Eskubaloia

Bergara-Donibane
Senior mutilak.
Larunbata, 17.30.
Labegaraieta kiroldegian.

► Saskibaloia

Bergara-Sto Tomas Lizeoa
Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.
Labegaraieta kiroldegian.

► Pelota**AFIZIONATUAK**

Bergara-Eibar
Deba Arroa txapelketako
partiduak. Bergararren
aldetik honako hauek arituko
dira: Infantiletan, Redondo
eta Martin; Jubeniletan, Osa
eta Gutierrez eta
seniorretan, Samaniego eta
Oruesagasti.
Ostirala, 22.00.
Udal Pelotalekuan.

PROFESIONALAK

Lejardi eta Azkarate /
Ortiz eta Bazeta
Etxaniz eta Tolosa /
Urionaguena eta Galarza
Soroa III eta Galardi /
Goñi eta Errasti II
Larunbata, 16.30.
Udal Pelotalekuan.

PALA TXAPELKETA

Larunbatean, Osintxuko
frontoian finalak 15.30etatik
aurrera.

Miguel Mulas

Eskalatzailea eta kazetaria

Migel Angel Mulas 14 urterekin, bere anaiarekin batera Atxartera joan zen lehen aldiz eskalatzera eta ordutik hona eskalada da bere afiziorik garrantzitsuenak. Gailur eskalatzaileen aldizkariaren bultzatzaile nagusia ere bada.

- Nola sortu zen *Gailur* bi hilabetekaria egiteko ideia?

- *Gailur*, Bergaran, aspalditik egiten zuten, baina duela urte bat ordenadore ikastaro batean hasi nintzen eta praktikak egiteko ordenadorearekin aldizkaria egiten hasi nintzen. Pixkanaka-pixkanaka gehiago liatzen hasi nintzen eta hor jarraitzen dut.

- Nola egiten duzue lan aldizkaria aurrera eramateko eta zer gai ikutzen dituzue?

- Aldizkari osoa nik maketatzen dut, artikuluak jendeari eskatzen dizkiot eta gero nik moldatzen ditut. Gaiei dagokienez, hasieran mendiarekin zerikusia duten gai guztiak jorratzen genituen, baina azkenaldian leku faltagatik eta jendeak bidaltzen dizkidan gaiak batez ere eskaladarekin zerikusia dutelako, azken gai hau da gehien jorratzen duguna.

- Laguntzaile asko dituzu?

- Ezagutzen ditudan eskalatzaileei esaten diet egiteko eta "txapa" sartu ondoren zerbaitegiten dute.

- Nola banatzen duzu aldizkaria?

- Orain arte 120 ale aterratzen genituen bakarrik

eta kotxea hartu eta Euskal Herriko zenbait tabernatan uzten nituen. Baina azkenengo zenbakiaren 1.500 ale egin ditugu eta hau banatzaileen bitartez kioskotan jarri dugu salgai. Gainera, orain inprentan egin dugu aldizkaria eta horrek gastuak igotzen ditu. Formtoa ere aldatu dugu eta horrekin batera, prezioa ere 300 pztara igo da.

- Zer da zailagoa eskalatzea ala errebista egitea?

- Aldizkaria egitea, gehiago kostatzen da eta buruhauste gehiago ematen ditu. Baina jendearen erantzuna ona izan da eta au-


rerra jarraituko dut.

- Eskalatzen hasten dagoenari zer gomendio emango zenioke?

- Orain nahiko erraz dute. Hasi ginenean arazo gehiago zeuden eta esango nioke kanpora eskalatzera joan aurretik rokodromora joan daitezela, sokak etb. nola erabiltzen diren jakiteko. Paretan hasteko erraztasuna behar da eta hasieran eskalatzen dakien norbaitekin hasi behar da.

- Inguruan zer toki dira onak eskalatzeko?

- Hasteko Atxarte. Gero hor daude Aizorrotz, Egiño, Eraña eta maila handiago batean, Araotz.



Gailureko azken zenbakiak 1.500 aleko tirada du.

"Gailur aldizkaria egiteak eskalatzeak baino buruhauste gehiago ematen ditu"



Ondarre plazan

Antzuolako Ondarreko plazan lehen ikastolia zauan, gero Maristetara pasau zan arren. Jaixetan eta, plaza hau zezen-plazia izaten zan, eta baita jolasian ibiltzeko primerako lekua urte osuan.

Baiña, aste honetako protagonistak 3 eta 4 urteko sei ume honek die. Oin ddala 24 urte txukun-txukun jantzi zien erretratuia etartzeko eta bertako haraietan jolasian hasteko gertu dare.

Ezkerretik eskumara:

Maite Toledo, Eli Etxaniz, Mirari Lamariano, Arantzazu Murgiondo, Ion Legorburu, Mari Anjeles Aristi.

Felipe Iñarra

Erretratua: Maite Toledo

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ORTZI
erretegia

*Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia*

☎ 76 22 68 ANGIOZAR

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

14-20 urte bitartean bazaude...

Zurea da aukera!!

HEZIBIDE

BATXILERGOA

MODULOAK eta F.P.2

SAIO INFORMATIBOAK

ALMEN IKASTOLA

Eskoriatza

Telefonoa: 71 49 07

Josebe Muruamendiaraz

BATXILERGO OROKORRA GOI BATXILERGOAK

- Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

3 MAILA

- Ekintza Sozio-kulturalak
- Gorputz eta Kirol ekintzak

GOI-BATXILERGOAK

Martxoak 29, asteazkena, 6etan

BATXILERGO OROKORRA

Martxoak 28, asteartea, 6etan

ESKOLA POLITEKNIKOA

Arrasate

Telefonoa: 79 47 00

Miren Murgiondo

LOGSE BATXILERGOAK

- Teknologia
- Natur eta Osasun Zientziak

2 MAILA

- Herramienta makina operatzailea
- Sukaldaritza

3 MAILA

- Fabrikazio mekanikoa
- Sistema mantenua
- Industrial diseinua
- Sistema automatiko eta programagarriak
- Harrera

3. MAILAKO MODULOAK

Apirilak 4, asteartea, 6etan

LOGSE BATXILERGOAK

Apirilak 5, asteazkena, 6etan

E.T.E.O

Oñati

Telefonoa: 78 13 11

Iraki Gaztañaga

GOI BATXILERGOA

- Administrazioa eta Gestioa

3 MAILA

- Gestio programatzailea
- Nazioarteko merkataritza

F.P.2

- Marketring
- Kontabilitatea
- Informatika

GOI BATXILERGOA

Martxoak 30, osteguna, 6.30eta

SAN FKO XABIER IKASTOLA

Arrasate

Telefonoa: 79 64 79

Elena Errasti

BATXILERGO OROKORRA

Hezkuntza Sistema berria eta irtenbide akademikoak

Martxoak 21, asteartea, 6etan

Martxoak 23, osteguna, 6etan

SAN VIATOR IKASTOLA

Arrasate

Telefonoa: 79 04 11

Idoia Urrutia

BATXILERGO OROKORRA GOI BATXILERGOA

- Natur Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

3. MAILA

Bizigirosasuna

GOI BATXILERGOAK

Martxoak 28, asteartea, 6etan

BATXILERGO OROKORRA

Apirilak 4, asteartea, 6etan



Zatoz HEZIBIDEk antolatutako
saio informatiboetara!!

HEZIBIDE. 136 Posta Kutxa Aretxabaleta

Telefonoa: 79 31 32 • Faxa: 79 79 22

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industriala.
Amilaga, 10 behea.
BERGARA

JAKINA

Telefona: 76 03 30
Faxa: 76 02 91